

***I. MAILAKO
ENTRENATZAILE
IKASTAROAREN DEIALDIA
-KARATE-***

I. MAILAKO KARATE ENTRENATZAILE IKASTARORAKO DEIALDIA

Deialdi honetako entrenatzaile-ikastaroa bat dator igaraldia deritzon epean zehar egingo diren prestakuntza-jarduerak arautzen dituen otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduan ezarritakoarekin.

Prestakuntzak, bukatutakoan eta betiere aipatutako otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduak eskatutako baldintzak betez gero, Kirolaren Euskal Eskolaren (Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza) onarpen ofiziala jasoko du eta, hortaz, dagozkion diploma ofizialak emango dira.

Otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen federazio sustatzaileak, ezin izango da prestakuntzaren onarpena lortu eta, beraz, ezin izango da diploma ofiziala eskuratu. Era berean, kirol-prestakuntza gauzatzen jarraitu ezin dela ezarri ahal izango du Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, aipatutako baldintzak betetzen ez direla jakiten duenetik aurrera. Horrez gain, erantzukizun penala, zibila edo administratiboa eskatu ahal izango dio federazio sustatzaileari.

1. IKASTAROAREN TOKIA, DATA, ETA ORDUTEGIA

Euskadiko **Karate** Federazioak sustatzen du ikastaro hau.

Sarrera-proba, bloke espezifiko eta praktikaldia federazioak berak antolatu/eman/zainduko du. Bloke komuna, ordea, Hezkuntza Administrazioak onartutako ikastetxe batek eman beharko du; kasu honetan, **EKFB**.

	ANTOLATZAILEA	TOKIA	DATAK	ORDUTEGIA
BLOKE KOMUNA	EKFB	On line	2025ko irailaren 16a (bloke komunaren hasiera). 2026ko urtarrilaren 31 (bloke komunaren amaiera) 2026ko urtarrilaren 10a (arrunta) 2026ko urtarrilaren 31a (apartekoa)	Larunbatetan: 9-14/15-20 Igandeetan: 9-14
BLOKE ESPEZIFIKOA	EUSKAL KARATE FEDERAZIOA	Berariazko programan zehaztuko da.	(Erdi-presentziala) 2026/01/10 (bloke espezifikoaren hasiera). 2026/07/31 (bloke espezifikoaren amaiera) 2026ko uztailearen 19a (arrunta) 2026ko uztailearen 31a (apartekoa)	Larunbatetan: 9-14/15-20 Igandeetan: 9-14
PRAKTIKALDIA	EUSKAL KARATE FEDERAZIOA	IKASLEAK AUKERATUKO DU LEKUA	2026/08/01tik - 20226/12/31ra	

****BLOKE ESPEZIFIKOAREN EZOHICO DEIALDIA: 2026/07/19**

Ikasleak ezin baldin badu egokitu bloke komuneko egutegira, modalitate honetako edo beste modalitateko ikastaro bateko bloke komuna (maila berekoa) egin ahal izango du. Horretarako dagokion federazioan matrikulatu beharko da. Kasu honetan, ondoren, ikastaro honetako diploma jaso ahal izateko, bloke komun horren gainditze-ziurtagiria federazio honetara ekarri beharko du praktikaldiaren epea amaitu baino lehen.

2. PRESTAKUNTZAREN HELBURUA

I. mailako ikastaroak kirol-hastapenaren etapan jardun nahi duten teknikarientzat dira. Maila honetan eskuratu beharreko gaitasun orokorrak honako hauek dira:

- Kirol-hastapena dinamizatzea, irakastea eta zehaztea.
- Kirolariei laguntzea maila honetako jardueretan, lehiaketetan eta ekitaldietan parte hartzen duten bitartean.
- * Hori guztia erreferentziako programazioan ezarritako segurtasun-baldintzen eta jarraibideen arabera.

3. PRESTAKUNTZA-JARDUEREN EGITURA

Ikastaroa hiru bloke edo ataletan banatzen da: bloke komuna, bloke espezifiko eta praktikaldia.

Prestakuntza-moduluak Urrutiko erregimena: online/erdipresentziala			
PRESTAKUNTA MODULUA	ERABATEKO ORDUAK	Tutoretza eta telematikoko orduak	Ordu Presentzialak
Kirol Portaeraren Oinarriak	20	20	0
Lehen sorospenak	30	30	0
Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	5	5	0
Kirolaren antolamendua eta legeria	5	5	0
Guztira	60	60	0

BLOKE ESPEZIFIKOA		
MODULOAK	Ordu presentzialak	Telematikoko Orduak
Karatearen didaktika	5	15
Kata eta kumite araudia	0	5
KUMITE I	15	0
KATA I	10	0
Segurtasuna eta higieena	0	5
Karateko garapen profesionala	0	5
Karatearen alderdi historikoak eta fisikoak I	0	5
Karatea eta Defentsa Pertsonalean duen Aplikazioa	5	0
Guztira	35	35

PRAKTIKALDIA	150 ordu
---------------------	----------

Prestakuntzaren ezaugarriak:

- Bilkura presentzialak, **ordu-kargaren % 80ra nahitaez bertaratuta.**
- Praktika-aldia:
 - Federazioaren berezko jardueretan edo federazioak baimentzen dituen kirol-elkarteetan egiten da.
 - Abiarazi ahal izango da, baldin eta ikasleak bloke espezifiko osorik gainditu badu eta matrikulatuta badago edo bloke komuna amaitu badu.
 - Gehienez ere 12 hilabeteko epea izango da bloke espezifiko arloen oharrak argitaratzen direnetik aurrera.

4. MATRIKULA EGIN AHAL IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) edo baliokidea (edo goragoko titulazioa) gaindituta izatea.
* Titulazio hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) Graduatu Tituluaren baliokide dira:

- a) Teknikari laguntzailearen titulua
- a) Teknikari titulua
- c) Batxilergo Bateratu Balioanizduneko (BUP) bigarren ikasturtea gaindituta izatea, edo, bestela, Batxilergo Bateratu Balioanizduneko bi ikasturteak amaitzeko, gehienez, bi ikasgai gainditzea falta dela egiaztatzea.
- d) Goi Batxilergoko titulua.
- e) Irakaskuntza Ertainen Erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren ikasturtea gainditu izana.
- f) 1963ko Planeko 3. ikasturtea gainditu izana edo irakasgai komun esperimentalen 2. ikasturtea gainditu izana Arte Aplikatu eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetan.
- g) Industriako ofizial titulua.
- h) Ondorio akademikoetarako, goikoen parekoak diren beste ikasketa batzuk gainditurik izatea.
- i) Batxilergoaren baliokide diren titulu eta egoera guztiak (taularen eskuinaldea)

** Eskola Graduata ez da DBHko tituluaren baliokide.*

* DBH titulua edo baliokidea izan ezean, ordeko heldutasun-proba egin daiteke (edo, bestela, Erdi Mailako LHra sartzeko proba). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtean behin egiten duen proba da hori. Argibide gehiagorako, klikatu [hemen](#).

* Atzerriko titulazioa duen pertsonak badu aukera ikastaroa egiteko baldin eta ikastaroa antolatzen duen federazioari hurrengo bi dokumentuak helarazten badizkio:

- [Ikastaroan baldintzazko izena emateko txartela](#) (beteta eta sinatuta).
- Atzerriko ikasketen homologazio-eskaera, eskumena duen hezkuntza-administrazioari egindakoa (ikastaroan sartzeko baimena ematen duen titulazio batekiko homologazio-eskaera). [Informazio gehiago](#).

Ondoren, ikasturte osoa amaitu baino lehen (praktikaldia barne), ikasleek federazioan aurkeztu beharko dute hezkuntza-administrazioak emandako homologazio-ziurtagiria. Bestela, egindako prestakuntzak ez du inolako balio ofizialik izango.

- Berriazko sarrera-proba gainditzea.
- Kirol-merezimendu hauen egiaztatzea: **1. DAN karate**

5. MEREZIMENDU ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA OFIZIALEN BIDEZ ARLOAK BALIOZKOTZEA

- Interesdunak eskabidea eta dokumentazioa aurkeztu beharko dizkio federazioari, ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez.
 - Bloke komunaren eremuak:
 - Jarduera fisikoen eta kirolaren arloko ikasketa **ofizialak** egiaztatzeagatik:
 - Ikusi baliozkotzeen taula.
 - Jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin zerikusirik ez duten eta gai bera eta eskola-karga berdina edo handiagoa duten beste irakaskuntza ofizial batzuk egiaztatzeagatik.
 - Eskaera
 - Bloke espezifikoa arloak:
 - Beste ikasketa ofizial batzuetan kirol-modalitate/-espezialitate horretako berriazko irakaskuntzak egiaztatzeagatik, baldin eta ikasketa horiek bat badatoz eta irakasgai bera edo handiagoa badute. Eskaera
 - 971/2007 Errege Dekretuak ezartzen duen goi-mailako kirolaria edo errendimendu handiko kirolaria izateagatik, blokeko arloen konpentsazioa lortu ahal izango da.
 - Eskaera
- Teknika, taktika eta erregelamenduaren alderdiei buruzko edukiak dituen espezifikoa. Eskaera Aurreko ikasturteetan kirol-modalitate honetako edo beste bateko bloke komuna (LOE bloke komuna) edo bloke espezifikoko zenbait arlo gainditu dituzten pertsonak ez dute inolako baliozkotzerik egin beharko; aitzitik, dagokion ziurtagiri ofizialaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko diote federazioari.

- Irakaskuntza-trebaerako ikastaroen taula bat ezartzen da, eta horrek ez du salbuespenik ematen ikasgaietan matrikulatzeko betebeharririk, baina bai gai izateko balio du, didaktika-arloetarako eskatzen diren gutxieneko ezagutzak egiaztatu badira:

ASIGNATURAS 1º	CN - 3º D	CN - 4º D	CN - 5º D	CN - 6º D	JUEZ	JUEZ N - B	JUEZ N - A	ARB.NACIONAL	IVEF/TAFYD	TAFAD	GOSHIN 1º D	GOSHIN 2º D	GOSHIN 3º D
Karatearen didaktika					X	X	X	X	X	X			
Kata eta kumite araudia													
KUMITE - I	X	X	X	X				X					
KATA - I	X	X	X	X									
Defentsa Pertsonala - I											X	X	X
Karateko garapen profesionala									X	X			
Segurtasuna eta higieena									X	X			
Karatearen alderdi historikoak eta fisikoak I													

Beste edozein titulu akademiko, hala nola ekonomia, historia eta abarretan lizentziatua edo tituluduna izatea behar bezala egiaztatu beharko da, eta Prestakuntza Eskolako Zuzendariak baliozkotzat joko du, egokitzen jotzen bada.

6. PRAKTIKEN ZIURTAGIRIA LORTZEA ESPERIENTZIA EGIAZTATUZ

Teknikari edo entrenatzaile gisa lan- edo kirol-esperientzia jakin bat egiaztatzen duten ikasleek praktika-ziurtagiria lortu ahal izango dute, dagokion praktikaldia egin beharrik gabe.

- Aukera hori eskuratu ahal izateko ezaugarriak:
 - Laneko edo kiroleko esperientzia kirol-modalitate/-espezialitate berean eta prestakuntza-maila bereko jardueretan.
 - 300 ordutik gorako esperientzia.
 - Eskola-kiroleko jardueretan prestakuntza edo lan- edo kirol-esperientzia izanez gero: 150 ordu.
 - Berariazko blokea hasi aurreko esperientzia osoa.
- Laneko edo kiroleko esperientzia honela egiaztatu beharko da:
 - Lan-esperientzia:
 - Besteren konturako langileak: enpresaren ziurtagiria, kontratuaren iraupena, egindako jardura eta lan egindako denbora jasotzen dituen.
 - Norberaren konturako langileak: zergapekoen erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna duten alta-ziurtagiria, bai eta jardura adierazgarriaren interesdunaren adierazpena ere.
 - Kirol-esperientzia:
 - Kirol federatua: Espainiako edo Euskal Autonomia Erkidegoko kasuan kasuko federazioaren ziurtagiria, egindako jardura eta jardura egin den aldia jasotzen dituen.
 - Eskola-kirola: dagokion foru-aldundiaren ziurtagiria, garatutako jardura eta jardura egin den aldia jasotzen dituen.
- Ikasle interesdunak eskabidea aurkeztu beharko dio federazioari praktikaldia hasi aurretik.

7. HIZKUNTZA

- EUSKERAZ**

8. DIPLOMA

- Prestakuntza osoa gaingitzen duten pertsonak diploma ofizial hau jasoko dute:
 - **Karateko I. mailako entrenatzailea**

- **KARATE** kirol-modalitate/-espezialitateko irakaskuntzak hezkuntza-sistemari dagokion dekretuaren bidez igaro ondoren, ikasleek diplomaren baliokide akademikoa lortu ahal izango dute, kasu honetan, karateko Erdi Mailako Hasierako Zikloaren Ziurtagiria.

9. IZEN-EMATEAK

- Izena emateko lekua eta modua: **EUSKAL KARATE FEDERACIOAN (INSKRIPZIOKO ORRIAREN BIDEZ)**
- Izena emateko epea: **2025/07/02 - 2025/09/09**
- Aurkeztu beharreko agiriak (**ezin da korreo elektronikoz bidali; presentzialki edo posta arruntez**):
 1. Ikastaroaren baldintzazko aitortpenaren jakinaren gainean egotearen idazkia, sinatuta. [Eredua](#).
 2. Arloen konpentsazio-baliozkotzeak eskatzekotan edo aurretik prestakuntza zati bat eginda izatekotan:
 - Baliozkotzeak: deialdi honen 6. puntuak adierazten duen eskabidea.
 - Aurretik egindako prestakuntza: egiaztatzen duen ziurtagiri ofizial **konpultsatua**.

*Ondorengo dokumentuak (3, 4, 5 eta 6) bakarrik aurkeztu beharko dituzte federazio honen bitartez entrenatzaile-ikastaro ofizial bat lehen aldiz egiten dutenek (Kirolaren Euskal Eskolak baimendu edo onartutako lehenagoko I. mailako ikastaroren bat eginda izatekotan, ez dira beharrezkoa izango):

3. NAN, Pasaporte edo AIZaren fotokopia.
4. Karnet-tamainako bi argazki, izen-abizenak (atzean idatzita).
5. Beharrezkoa den gutxieneko titulazio akademikoa edo, hori ez edukiz gero, horren ordezkot heldutasun-proba gainditu izanaren agiria. Onartzen diren dokumentuak:
 - Titulu akademikoaren **fotokopia konpultsatua** (edo galduta izatekotan, Hezkuntza-ordezkaritzak emandako ordezkot titulazioaren ziurtagiriaren **fotokopia konpultsatua**).
 - Tituluaren tasak ordaindu izanaren ordainagiriaren **fotokopia konpultsatua**.
 - Kalifikazio-liburuaren (eskolatze-liburua edo ikasketa historia ofiziala) **fotokopia konpultsatua**.
6. I. maila gaindituta duela egiaztatzen duen diplomaren edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua, edo originala eta fotokopia. Bi modutan egiaztatu ahal izango da, prestakuntzaren tipologia araberak:
 - Prestakuntza ofiziala igaroaldian zehar: igaroaldiko aurreko maila (ofiziala) **osorik** gainditu dela egiaztatzen duen diploma edo egiaztagiria.
 - Federazio barruko prestakuntza: Eusko Jaurlaritzeko Kirol zuzendariaren ebazpena, II. maila sartzeko baimena ematen diona. Ikasleak modu indibidualean eskatu behar dio ebazpen hori Kirolaren Euskal Eskolari.

**Administrazio publiko jakin batzuetan (ez guztietan), notaritzetan edo Kirolaren Euskal Eskolan konpultsa daitezke fotokopiak.*

Bloke komunearen izen-ematea: posta elektronikoz ekfb@euskalkirola.eus helbidera, izen-emate orria erantsita eta bloke komunaren ordainketa EKFBren kontura transferentziareno egiaztagiriarekin (ES73 2080 3638 2130 4000 7094), transferentziaren zein emailaren kontzeptuan izen-abizenak jarrita. **EKFBk diruz lagunduta**

- Plaza-kopurua: **30**

- Prezioa:

	PREZIOA
Bloke komun osoa	80,00€
Bloke espezifiko osoa	400,00€
GUZTIRA	480,00€

* PREZIOETAKO OHAR ESPEZIFIKOAK:

- a) Bloke komuna:
 - Baliozkotzeak (moduluaren %33aren ordainketa), matrikulazio partzialak.
- b) Berariazko multzoa eta praktikaldia:
 - Arlokako matrikulazio partziala: 125 € ikasgai bakoitzeko.
 - Baliozkotzeak: (moduluaren %25 ordaintzea), matrikulazio partzialak.

- Ordaintzeko modua:

- **Bloke komuna:** Banku-transferentzia ES73 2080 3638 21 3040007094 kontu-zenbakira (EKFB).

EKFBk diruz lagunduta

- **Bloke espezifikoa:**

- **Banku-transferentzia** ES06 3035 0019 99 0190049423 kontu-zenbakira (FVK/EKF).

- **HELBIDETUTAKO ZORDUNKETAK**

- **WEBGUNEKO TPV**a (www.karateeuskadi.eus)

EKFBren dirulaguntzarekin

- Ikasleak osorik matrikulatu ahal izango dira, blokeka edo arloka (betiere sartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen badituzte).